

KONTU KONTARI

IDUZKILORE ANTZERKIA DE LANCRE LAPURDIREN AURKA

Duela bi urte, 2008ko irail aldera ezagutzen ez nituen bi gizon nirekin hitz egitera etorri zitzaizkidan. Mixel Mendiburu eta Peio Xipi senperrak ziren. Kontatu zidatenez ba omen zegoen elkarte bat antolaturik, *Lapurdi 1609-2009* izenekoa, eta beraien asmoa 1609. urtean Frantziako Henri IV.aren eta haren ordezkari zen Pierre Lancre-ren bitartez Lapurdin izan ziren hilketa lazgarrien berri ematea zen. Horretarako era gutzietako ekitaldiak omen zituzten pentsatuak: hitzaldiak, bertso saioak, erakusketak eta baita Senpereko gazteluaren aitzinean egin nahi zuten oroigarria ere. Baina hori dena ez aski omen, eta antzezlan bat egin eta jokatu nahi zuten Lapurdiko herritarrei beraien arbasoekin egindako krimen eta tortura izugarriak erakusteko. Baina hori egin ahal izateko, antzezlan bat idatzi beharra zegoen, eta Peio Xipi horretarako prest bazegoen ere, beste norbaiten beharra zeukaten, eta niri antzerki horren erredakzioan parte hartzea proposatu zidaten. Ideia arras ederra iruditu zitzaidanenez onartu egin nuen eta horrela ia pentsatu ga-be ene burua abentura eder horretan sarturik ikusi nuen.

400. urteurrenean, hau da 2009. urtean, plazaratu nahi zute-nez gero, berehala ekin genion lanari. Eskerrak, Peio Xipik historia sobera ongi ezagutzen zuen eta bazituen zenbait ikerlan buruturik aipatu gertakizun lazgarrien gainean. 2.009ko apiri-

lean, Sarako Idazleen Biltzarrean kaleratu genuen lehen aldiz gure antzezlan. Hiria argitaletxearekin eman genuen argira eta garai zaharretatik euskaldunon babes-ikur izan den eguzki-lorea hartu genuen izenburutzat. Testua liburuetan lapurtera moderno edo nafar-lapurtera deitzen den horretan idatzi genuen.

Behin antzezlan idatzi ondoren, elkartekoek Manex Fuchs antzerkigilerekin hitz egin zuten eta honek taula-zuzendari izatea onartu zuen. Berehala ekin zion lanari eta hamahiru lagunene taldea osatu. Talde horretan baziren Lapurdi osoko arizaleak, eta horietako batzuk profesional samarrak, Telesforo Monzonen antzerki zenbaitetan aritutako Mixel Brust hazpandarra (Sortzez Nafarroa Behereko Suhuskunekoa) kasu. Lapurdik 1609-2009 elkarrekin Lapurdiko herritik sorturiko antzerkia nahi zuen, duela 30 edo 35 urte Lapurdin jokatzeko ziren antzerki arrakastatsu haien segida nolabait izan zitekeena, eta Manex Fuchs eta bere antzerki-taldea buru-belarri lotu zitzaizkion xede horri.

Hurrengo urratsa antzezanaren moldapena izan zen eta horretan gehienbat Manex Fuchs eta Mixel Jorajuria serrestarra aritu ziren. Moldapen sakona egin zuten, funtsezkoa... eta hasieran erabilitako nafar-lapurteratik lapurtera zaharrera pasatu ziren, Lapurdiko mintzaira zaharrak, gaur egun Lapurdiko laborarien artean bizirik irauten duenak, ongi merezi baitzuten elkarteko begirunea, mirespena eta erabilpena. Asmo hau bete-betean uztartzen zen elkarrekin hasieratik defendatu zuen proiektuarekin: lapurtarrena eta lapurtarrentzat, Lapurdin 1609an erail zituzten herritarren oroitzapenezkoa eta gaurko lapurtarren harrotasun motibo.

Arizaleak, gehien-gehienak amateurak zirenak, izugarri fin ekin zioten beren lanari errepitizionetan zein emanaldietan. Horra hor beraien izenak, lerro hauetara ekartzea merezi dutelakoan: De Lancre demonologo eta errege ordezkari odoltsua Mixel Brust izan zen. Urtubia eta Senperereko jauregiarekin jaunak Peio Berhokoirigoin eta Mixel Sarratia. Etxauz apezpiku baigorriarra Robert Duhalde. Pierre Bokal bikarioa Mixel Jorajuria. De Lancren idaz-

karia Kristian Senné. Morgi izeneko emazte ijito eta salataria Lier-ni Elorza. Jurdana emagin eta belagilea Kattin Mendiburu. Etxeko jabe den emaztea Bernadette Luro. Ikazkinak Xalbat Dagerezar eta Jamixel Bereau. Eta Maialen Fauthoux, Maider Beheran eta Bernadette Luro izan ziren zuriketan aritzen ziren emaztekiak. Ene zorion beroena denei egindako lan handiagatik.

Antzerki honetan parte hartutako guztiak ditut gogoan, dene-kin une ahaztezinak igaro bainituen. Bakoitzak bere izaera, bere irria, bere bizimodua... Haatik, bada gizon bat, Mixel Brust baxenafarra, Suhuskunekoa Hazparnen aspaldian bizi dena eta Telesforo Monzon handiaren zenbait antzerkitan gaztea zelarrik parte hartu izana. Berezia zen gizona, berezia eta azkarra. Bazirudien De Lancre bera zela, pertsonaiaren baitan hezur-mamitzzen baitzen. Artista hamaika izkinatetik. Errepetizioneak egin ondoren lagunarterako denbora izaten genuen, afari hotza egiten genuen, eta hizketari ekiten genion. Adiskide arteko giro horretan ere nabarmena zen. Maisu txisteak kontatzen eta maisu hitza trebezia handiaz erabiltzean. Hona hemen bi adibide:

Behin, Mixel Mendiburuk ardo nafar ezin hobea ekarri zuen. Denok edalontzia prest geneukan hura dastatzeko irrikan. Mixel Brustek ere edalontzia eskuan prest zeukan. Gure-tako baten batek irri egin nahian edo, horrela esan zion:

Mixel, kasu eman ezazu arnoarekin!

Eta berak, solemnitare handiz horrela erantzun:

Jinkoak egin zuen ura, gizonak arnoa. Errespetata dezagun ura eta edan dezagun arnoa.

Bere erretolika amaitu aurretik, basoa ardoz gainezka zuen, eta inori deus esateko astirik eman gabe, ahora eraman zuen eta zurrutada azkar batez hustu.

Beste behin honako txiste hau kontatu zigun:

*Ba al dakizue nola erraiten zaion emazte aunitz ukaiteari?
Poligamia. ---guk.*

Eta biru emazte ukaiteari?

Trigamia. ---guk.

Ederki, ederki! Eta bi emazte ukaiteari? ---berak temati.

Bigamia. ---berriz, guk.

Eta emazte bakarra ukaiteari? ---Mixel Brustek irrifar mal-tzur batez.

Monogamia. ---guk.

Ez! Biziki gaizki! ---Mixelex-- Monotonia!

Maiatzaren 31n, astelehena, arratsaldeko 5etan antzerkiaren aurkezpena egin zuten Amotzeko Larraldean bertara hurbildu ziren komunikabideetako kazetarien aitzinean, eta seieta azken errepetizioa egin zuten ikusi nahi izan zuten guztien aurrean, jantziak eta guzti. Aurkezpenean, Manex Fuchsek garbi utzi zuen zein zen elkartaren eta antzerki horretan parte hartzen zuten guztien asmoa. Azken 30-35 urteetan euskarazko antzerkia barnealdeko kontua izan da, garai batean kostaldean egiten ziren antzerkiak iraganeko kontuak baitziren. Piarres Larzabal, Telesforo de Monzon, Iratzeder, Piarres Lafitte izan ziren antzerki aro loriotsu horren azkenak. Eta orduz geroztik, Lapurdiko euskal antzerkigintzaren baratzea loratu gabe zegoen. Antzerki honekin aro berri baten atea zabaldu nahi zuten Lapurdin.

Errepetizioa, ene ustetan, izugarri ederra izan zen. Arizaleek sekulako lana egin zuten, ongi egindako lana. Eta ekainean zehar egindako bost emanaldietan plazak eta aretoak jendez gainezka egon ziren. Ekainaren 11n, gaueko 9etan, Senperen jokatu zuten lehen aldiz sekulako arrakasta erdietsiz. Bi egun beranduago, 13an, igandearekin eta arratsaldeko 5etan Uztaritzeko ezker-paretan. Ekainaren 18an, gaueko 9etan Garaziko Izpuran. Hurrengo egunean, ekainaren 19an, igandearekin eta arratsaldeko 8,30etan antzerkia Lapurdira itzuli zen, Ziburura, hain zuten. Jendez lepo zen herriko pilota-plazan jokatu zuten. Ekainaren 20an Zuberoako Alozen, arratsaldeko 5etan. Eta ekainaren 22an, gaueko 9etan bestetan zen Hazparnen. Emanaldi hauetan guz-

tietan arrakasta itzela atzeman zuten. Lapurtarrek izugarri estimatu zuten antzezlan hau, eta Senperen izan zen negar malkoak kontu ezin izan zuena. Antzezlanaren nondik norakoak zabaldu dira Euskal Herri osora eta jadanik badira hamar bat herri antzezlanak galduak dutena. Hori dela eta, agorriaren amaiera aldean, berriz hasiko dira emanaldiak ematen.

Bukatzeko ekarriko dugu lerro hauetara antzezlanaren aurkezpenean Manex Fuchs taula-zuzendariak egin zuen sinopsia: *Frantziako Henri IV.aren erreinupean gare. 1609ko ekainaren 27a da eta karrozak Bordeleatik Baionarako bidean dire. Bordeleko Parlamentuko batzordeko kideak, Henri IV.aren aginduz, Lapurdira abian dire beldurra eta heriotza zabaltzera. Bertzeak bertze, hor dire Bordeleko Parlamentuko presidente den Espagnet eta bere lana balako grinarekin egiteagatik ospetsu bilakatu zen Piarre de Lancre kontseilari eta demonologoa.*

Leben ekitaldian gizonak Ternuan dira, bakailua eta balea arrantzatzera joanak. Herriko garbategian gare; emazteak gogoseaz, izurriteez eta etorkizunak sortzen dizkien kezkez mintzo dira. Eguneroko bizia kudeatzeko bakarrik dira orduko emaztekiak. Kattalin eta Maddi pobreak dira. Maialen alarguna bere etxaldearen jabe da eta diruz lasaiago bizi da. Emazte bakoitzak bere iritzia du De Lancreren etorrerari buruz. Eztabaida gaiztotzen ari da.

Bigarren ekitaldia bide bazter batean gauzatzen da. Beñat eta Auxtin egur-ikatzak garraiatzen ari dire. Bidean herriko bikarioa atxematzen dute. Ez dute garbi eskatu zaien ikatz hori guztia zertarako erabiliko duten.

Hirugarren ekitaldian Urruñako Jaunak Senpereko jauregiko Caupenne d'Amou bere jauregira afaltzera gonbidatzen du. Bi jauntxoak De Lancre hiltzailearen kolaboratzaileak izanen dira.

Laugarren ekitaldian De Lancrek Baionako apezpiku den Etxauz baigorriarra bisitatzen du. Hasiera-hasieratik zein den bere asmoa agertuko du.

Bosgarren ekitaldian De Lancrek Urtubiako eta Senpereko jaunek eskainitako afari ederra eskertzen du. Bi jauntxoek Morgi izeneko neska sorgin damutua aurkezten diote. Morgi epaiketa guztietan izanen da emazteki guztien aurka eginez.

Seigarren ekitaldian hiru epaiketa izanen dire. Lehenengoan Maddi liraina sutara eramanez dute, bigarrenean Pierre Bokal apezza ere kondenatua da, eta hirugarrenean Maialen Indart etxejabe ederrak kondena bera pairatuko du.

Zazpigarren ekitaldian Senpereko eta Urtubiako jaunek De Lancre zorientzen dute egindako lanagatik.

Zortzigarren ekitaldian, Kattalin Zubieta epaitzen dute. Emaztea ez da makurtzen. Arrantzaleak etxera itzuliak dira eta herrietan baserre handia da. De Lancrek eta bere idazkariak okerreza espero dute. Morgi, De Lancreren laguntzaile fidela izandakoa baztertzen dute.

Bederatzigarrenean, De Lancrek, abiatu aitzin, bisita egiten dio apezpikuari eta 200 pertsona eramanez ditu berekin Bordele aldera Urte luzetan Hâ-ko gazteluan edukiko ditu bertako ziegetan preso atxikirik.

Eta azkena den hamargarren ekitaldian, bizirik iraun duten emaztekiek aferak garbitzen dituzte familian.

Ikusten duzuen bezala, dena prest dago bigarren emanaldi-itzuli bati ekiteko. Ziur naiz lehena bezain arrakastatsua izanen dela. Hazia erein da, uzta jasotzen ari gara, eta ziur naiz honen gibeletik antzezlan gehiago loratuko direla Lapurdiko kostaldean, etorkizuna euskaraz baitator Euskal Herri osoan.

*Joseba Aurkenerena Barandiaran
Urruñan, 2010eko uztailaren 12an.*